Usurbil, sagardozaleen hitzordua

Maiatzaren 23an ospatuko da 18. Sagardo Eguna

USURBILDARREK eta Usurbilera bertaratzen den edonork. Izan ere, dagoeneko sagardozaleen hitzordua bilakatu da Usurbilgo Sagardo Eguna, eta aurtengoa 18.a izango da, goizeko 11:00etan hasi eta arratsaldeko erromeriara arte egun guztiko jaia. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak antolatzen du jaia, eta gero eta arrakasta handiagoa du.

Botatzaileen lehiaketa, sagardo dastaketa eta erromeria izango dira, besteak beste

Berrogei sagardotegik baino gehiagok beraien sagardoa eramango dute Usurbilera, bakoitzak 120 botila, baina aurten, aurreko urteetan ez bezala, goizez bakarrik banatuko da sagardoa. Dena den, Usurbilgo Sagardo Egunak dastaketa soila baino harantzago heldu nahi du. Jendea botilako sagardoa edatera ohitu dadila du helburu. «Sagardo egun hori antolatzen hasi zirenean, helburua zera zen: orduan sagardoak zuen izen eskasa desagertaraztea. Sagardoa baserrietan soilik edaten zen, langile jendearentzat soilik zen. Orain, berriz, sagardoak ez du izen txarrik, baina jendea ez da botilako sagardoa edatera ohitu. Txotx garaian jende ugari joaten da sagardotegietara, baina gero botilatik apenas edaten den. Hori da gure helburua, jendea txotx garaitik at botilatik edatera ohitzea. Gainera, botilako sagardoak kupelekoak baino kalitate hobea du», adierazi digu Aitor Iletak, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteko kideak.

«Zenbat jende izaten den jakitea zaila da, baina kalkulatu izan dugu 10.000 lagun pasatzen direla herritik. Guztia ongi joan dadin 160 bat lagun aritzen gara lanean», dio Aitorrek. Langile guztiak bertakoak dira, astebete aurretik zerrendetan borondatez izena ematen dute lanerako.

• Dastatu, ikusi eta ikasi

Bi helburu nagusi ditu Usurbilgo Sagardo Egunak: sagardoaren inguruan informazio egokia zabaltzea eta jendea botilako sagardoa ere edatera ohitzea . Horretarako, sagardo dastaketaz gain bestelako hainbat ekitaldi izango dira Usurbilgo plaza inguruan. Egun osoan zabalik izango da erakusketa bat plazan, eta bertan informazio mahaia ere jarriko dute, eta Interneta bidez, sagardoari buruzko orrialdeetan sartzeko aukera izango du nahi duenak.

Sagardoa ez ezik, sagarrez eta sagardoz eginiko jakiak ere salgai izango dira. Dastaketa amaitu ostean, sagardo botatzaileen lehiaketa izango da. Arratsaldean, berriz, festa giroa izango da, erromerian, Tapia eta Leturiarekin batera. Sagardoa dastatzeko, ikusteko eta ikasteko aukera paregabea, beraz, Usurbilen.

• Ane Sarasketa •



JAGOBA MANTEROLA

••• Usurbil sagardoaren hiriburu izango da maiatzaren 23an.

USURBILGO UDALA
• Txotatik botilara
UEMA

OTATZA SAGARDOTEGIA
Otatza Baserria
Tel.: 943 80 17 57
20214 ZERAIN

Egunkaria
IRAGARKIAK
☎ 943300222

LARRETA SAGARDOTEGIA
HARITZ 943-654293 689-985432
AMEZKETA
JOXE MARI 943-652946 608-975198